

Kafe kapsulak birziklatzeko kanpaina abiatu dute

60 edukiontzi berezi jarri dituzte eskualdeko herrietan, eta 9 herritan informazio puntuak; lehen urtean 25.000 kilo biltzea da helburua // 5

Txosnak Euskal Herria plazan jartzeko udalak ez du baimenik emango

Udalak esan du txandakatze sistema adostu zela bertako bizilagunekin; erabakiak «txosnaren deuseztapena» dakarrela erantzun dute // 3

Ferialekua erabiltzeko eskaera egin daiteke

Inauterietako karrozen prestaketak egiteko otsailaren 6tik 26ra erabili ahalko da // 3



N. ROLDAN DE ARANGUIZ

Bertsozalea ederki ase du jaialdiak

Amaia Agirre gidari lanetan dela, Oihana Iguaran, Jexux Mari Irazu, Alaia Martin, Amets Arzallus, Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colinak bertso saio ederra eskaini dute; Leidor bete duten bertsozaleek gozatua hartu dute // 4

Usabal kiroldegia Mugiment programara batu da

Programaren barruan dauden beste 76 kiroldegietako sarbidea izango dute Tolosako kiroldegiko abonatuak, txartel birtualari esker // 7



zozketa

Atarikideentzat **bi sarrera** ditugu

Guuk Gipuzkoa Basket
vs
Club Ourense Baloncesto
partida ikusteko

Urtarrilak 28, larunbata 19:00etan
Donostiako Angulas Aguinaga Arenan

Zozketan parte hartzeko **osteguneko** 11:00ak arte **943 65 56 95** edo **www.ataria.eus**



ISASTEGI
~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM



‘Izan Tolosa’ entzute ariketa jarri du abian Tolosako EAJ alderdiak

Iturbe alkategaiak tolosarren proposamenak jasoko ditu aurrez aurre, kafe baten bueltan edota bide telematikoen bidez, hauteskundeetarako programa osatzen laguntzeko



Tolosako EAJk, Xarles Iturbe Pasaban alkategaia buru, 'Izan Tolosa' kanpaina aurkeztu zuen pasa den astean. J.A.D.

Josu Artutxa Dorronsoro
Tolosa

Tolosako EAJ-k *Izan Tolosa* entzute ariketa jarri du abian datozen hilabeteetarako, herritarren ekarpena bertatik bertara jasotzeko eta herriko eragile desberdinekin hitzartzeko. Xarles Iturbe alkategaiak tolosarrak entzun eta euren proposamenak jasoko ditu aurrez aurre eta bide telematikoen bidez. «Tolosar guztien ekarpenekin osatu nahi dugu 2023ko udal hauteskundeetarako programa. Pertsona guztiek eginiko proposamena izatea nahi dugu, pertsona guztientzat egina. Herrigintza herritarrekin eginez, Tolosako herritarren ahotsa entzun nahi dugulako. Guztiok osatzen dugu Tolosa eta ekarpenak jaso nahi ditugu guztion beharrei erantzungo dien proposamena garatzeko», azaldu du Iturbek.

Tolosako EAJ-ko alkategaiak, gizarteak politika egiteko eta politikariekin harremanetan jartzeko bide berriak eskatzen dituela adierazi eta erronka hori eutsi nahi diotela gaineratu du: «Tolosako norbanako eta elkarrekin ekarpenak jasotzen jarraitu nahi dugu. Ezinbestekoa da gure proposamenak Tolosako txoko guztietan bizi diren errealitateak eta beharrianak aurreikustea,

argi dugulako Tolosa askotarikoa dela eta denon artean herri hobia eraikitzen jarraitzeko gaitasuna dugula».

Beharrak eta etorkizuneko erronkak eta gizarte eta haren eskakizun eta kezkak etengabe aldatzen direla adierazi du alkategaiak. «Horregatik, ezinbestekoa da interakziorako eta etengabeko ebaluaziorako aukerak eskaintzea. Zentzu honetan, parte-hartzea eta elkarlanerako dinamika sustatu eta aberaste aldera sortutako ekimenak tolosarren etorkizuneko lehentasunak ezagutzea du helburu». *Izan Tolosa* ekimenari *Zuk hitza, guk kafea* leloa jarri diote. «Tolosarrok dugun nortasunaren balioa nabarmendu nahi dugu, elkarlanea ohituta gaudelako eta horretaz harro gaudelako, herri honen altxorretako bat delako», gaineratu du Iturbek.

Orain, Agenda Soziala osatzen ari dira alderdiko kideak, eta aste bakoitzean arlo baten inguruko elkarte eta erakundeak bisitatu dituzte. «Ateak zabalik ditugu gurekin harremanetan jarri nahi duten elkarte, enpresa eta bestelako eragileentzat, guztion artean etorkizuna ereiten jarraitzeko», adierazi du.

Hala ere, norbanakoek aukera izango dute hautagaiarekin elkartu eta proposamenak aurrez

aurre helarazteko. Horretarako, bide ezberdinak izango dituzte. Nahi duenak, 688 625 230 telefono zenbakira deitu edo idatzi dezake, baita Whatsapp bidez ere. Nahiago duenak, ondoko helbide elektronikora idatzi dezake: tolosa@eaj-pnv.eus. Alkategaiarekin elkartzeko ordutegia honakoa izango da: astearte, asteazken edo ostegunetan, 15.00etatik 17.00etara. Aipatutako bideetako batetara idatziz eskatu daiteke hitzordua. «Ordutegi bat zehazte aldera jarri dugu ordu tarte hori, baina malguak izango gara eta norbaitek beste momenturen batean elkartu nahi badu, idatzi lasai eta egokitu dugu hitzordua», adierazi du Iturbek.

Amaitzeko, aurrean dituzten erronkak «nolanahikoak ez» direla eta horiei guztiei aurre egiteko garaian «pertsonak erdigunean» jarri nahi dituztela esan du alkategaiak. «Esperientziak erakutsi digu parte-hartze egitasmoekin aberastu egiten direla alderdiok ditugun ideia eta proiektuak. Horregatik, beste behin, gure ateak zabalik ditugula gogorazi nahi dugu eta nirekin elkartzera gonbidatu nahi ditut herritarrek. Ekarpnaren entzuteko gogoz nago, bertatik bertara, goxo, kafe baten bueltan», gaineratu du.

Agintarien «erasoaldiaren» kontrako mobilizazioa

Gazte Koordinadora Sozialistak mobilizaziorako deia egin du larunbaterako; autobusak antolatu ditu

Erredakzioa

Gazte Koordinadora Sozialistaren iritziz, kapitalismoaren krisi sakona bizitzen ari den honetan, «denok ez ditugu krisiaren ondorioak berdin jasaten». «Are gehiago, bankari eta enpresari handiek negozioa egiten dute testuinguru honetan. Zuzenean eta zeharka langileen soldatak erasotzen dituzte», gaineratu du Asier Aierbe koordinadorako kideak.

Hori dela eta, mobilizazioa egingo dute larunbatean, hilak 28, Bilbon, eta autobusak antolatu dituzte hara joateko. Autobusak Villabona, Irura, Ibarra, Alegia eta Tolosatik pasako dira eta itzulerrako bi aukera egongo dira, 21:00etan eta 02:00etan. Autobuserako txartelak Rainbow (Villabona), Arkupe (Anoeta), Atari (Ibarra) eta Rakun (Tolosa) eskuratu ahal dira 3 euroan. Eta 689 49 61 48 telefono zenbakira idatzita ere eman daiteke izena.

Izan ere, GKSren ustez mobilizazio batek erasoaldia geldituko ez duen arren, «GKS garrantzitsua ikusten du aldaketa posible den eta horretarako borrokatu beharraren ideia hedatu eta gazteon artean borrokarako eta antolakuntzarako grina hedatzea», esan du Sara Gonzalezek.

Testuinguru «basati» honen adibide bezala aipatu ditu Gon-

zalezek «Tolosaldeko ostalari-tzako langileen erdiak ordaindu gabeko ordu estrak egitea eta sektore bereko langileen % 40 inguru kontraturik gabe egotea, hainbat enpresatan lan-hitzar-menak ez errespetatzea, eskualdeko 4.000 etxebizitza baino gehiagok pobrezia energetikoa jasatea...».

Horrela, langileen soldatek geroz eta balio gutxiago dutela esan du eta langileen egoera kas-kartzen ari dela. «Krisia, beraz, ez da gertakari neutral bat, enpresari handien eta agintarien erasoaldia da. Beraien diru goseak, langileriaren miseria dakar», gaineratu du Aierbek.

ERASOALDIAREN PARTE

Enpresari eta agintariak ez ezik, politikari profesionalak ere erasoaldiaren parte direla iritzita, horiek «burgesia handiari subordinatuta daude eta martxan jartzen dituzten politikak klaseertainaren eta burgesiaren interesen defentsan dira», GKSko kideen hitzetan.

Horiek horrela, testuinguru gero eta «autoritarioago batera» garamatzaten politikak jartzen dituzte martxan, «udalek polizia baliatzen dute gazteria kriminalizatzeko, azpiegitura publikorako sarbidea mugatzen dute modu arbitrarioan... Politikari hauek, beraz, ez dituzte gure bizitzak hobetuko».



Asier Aierbe eta Sara Gonzalez, Tolosaldeko GKSko kideak. ATARIA

Inauterietako txosnagunea, Euskal Herria plazatik kanpo

Tolosako Udalak esan du txosnak ezin direla azken urteetan jarritako toki berean jarri; agerraldia eskaini du hori iragartzeko eta Txozna Batzordeko kideak gerturatu dira

Irati Saizar Artola

Inauteriak prestatzeko lanetan ari da Tolosako Udalak eta txosnen kokapenari dagokionez hartu du erabakia udalak: ez du baimenik emango txosnak Euskal Herria plazan jartzeko. Olatz Peon alkatea adierazi du azken urteetan, Inauterietan, lekualdatze eta txandakatze sistema ez dela bete, «aspaldidanik ezarritako baldintza eta irizpidea izanik». «Orain urte asko, Euskal Herri plazako bizilagunekin adostu zen alternantzi bat egongo zela txosnagunearekin; urte batean Euskal Herria plazan jarritz gero, hurrengo urtean beste plaza batean jarriko zela».

«Urteetan lantzen aritu garen gaia da plazen arteko txandakatze sistemarena; hiru bilera egin ditugu Txozna Batzordearekin, urtero hitz egin den gai bat da eta iaz jada jakinarazi zitzaizen aurtengo txosnagunea lekualdatu beharko zutela, beraz, ez da albiste berria izan beraientzat», esan du alkatea. Hala ere, Txozna Batzordearen aldetik ez dela «bene-tako borondaterik egon» esan du txosnak lekuz aldatzeko. «Txozna Batzordeak Euskal Herria plaza ez den beste eremurik ez du onartzen, ezta onartuko ere», gehitu du. «Jada jakinarazi digute Plaza Berrian ez dutela txosnagunerik antolatuko».

<<BORONDATEA BEHAR DA>>

Gogorarazi du, era berean, txosnagunea antolatu izan dela beste eremu batzuetan ere, beraz, posible dela eremu aldaketa, baina «borondatea» behar dela horretarako, eta «ez da non ez zein baldintzetan antolatu eztabaidatzeko eta hitz egiteko aukerarik izan».

Era berean, txosnak festetan duten papera eta jardura errekonoizitu ditu Peonek, eta festari «ekarpen garrantzitsua» egiten diotela esan du, «azken urteetan, esaterako, kontzertuak antolatzen, non Tolosako Udalak bere



Peon alkatea eta Villanueva zinegotzia, udalaren erabakiaren berri ematen. I.S.A.



Txozna Batzordeko kideak batzar aretoan, euren jarrera azaltzen. I.S.A.

egitarauan jasotzen zituen, eta hori herriarentzat positiboa izan da».

DESADOSTASUNA

Prensa agerraldia amaitzeaz zela, Txozna Batzordeko kideak sartu dira udaletxeko pleno aretora. Panfletoak bota dituzte aurrera *Txozna Euskal Herri plazan, udalaren eraso gelditu* lemapean, eta protesta egin dute, txosnen lekuak Euskal Herria plaza izan behar duela aldarrikatuz. Haserre agertu dira, esanez, udalak ez diola jaramonik egin haiek egindako proposamenari. Izan ere, Txozna Batzordeak egin du proposamena: txosnak Euskal Herria plazan mantentzea, baina neurriak hartuta, esaterako, ordutegiari dagokionez edota soinu ekipoari dagokionez. Alkatea erantzun die erabakia hartuta dagoela, ez direla Euskal Herria plazan kokatuko,

eta hortik aurrera «hitz egiteko eta proposamen berriak jasotzeko prest» dagoela.

Txozna Batzordeko kideek testu bat irakurri dute, eta esan dute txosnak lekualdatzeak «txosnaren deuseztapena» dakarrela eta «onartezina» dela. Neurri berean udalaren jarrera salatzen dute, eta esan dute «teknikoki posible ez diren proposamenak egiten ari direla denbora irabazteko intentzio interesatuarekin». Plazen arteko alternantziarekin ez daude ados: «Bi urtean behin txosnari ez egotea eta ekimen txikietarako erabiltzen duten karpak txiki bat festa gunetik urrun egotea ekartzen du horrek». Hartutako erabakia «txosnak gainetik kentzeko lehen pausoa» dela gaineratu dute.

Aurreratu dute ez direla inauteri «lasaiak» izango: «Kanporatu nahi bagaituzue, guk gurearekin jarraituko dugu».

Ferialekua erabiltzeko eskaera epea, zabalik

Hilaren 26ra arte eskatu daiteke Inauterietarako prestaketa lanak egiteko; Udaltzaingoa arduratuko da Ferialekua ireki eta ixteaz



Herritarrek Ferialekuan lanean, artxiboko irudi batean. ASIERIMAZ

Erredakzioa

Urtarrilaren 26a da Inauterietarako karrozak eta antzekoak prestatu ahal izateko, Ferialekua erabiltzeko eskaera egiteko azken eguna. Aurtengo badago berrikuntzarik; izan ere, udalak ez du giltzarik banatuko eta Udaltzaingoa arduratuko da Ferialekuen irekieraz eta itxieraz.

Plazak mugatuak izango dira eta dauden partzelak baino eskaera gehiago egonez gero, lekuak esleitzeko zozketa egingo dute urtarrilaren 30ean. Lekua lortzen dutenek, Ferialekua erabili

ahal izango dute plataformak egiteko otsailaren 6tik 26ra, astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 21:30era, eta asteburuan, 10:00etatik 21:30era. Aldi berean, plaza eskuratzen dutenek, 200 euroko fidantza ordaindu beharko dute ezinbestean, bankuko transferentzia baten bidez.

Ferialekua erabiltzeko eskaerak telematikoki edo Udaten egin daitezke.

16 urtetik beherakoek ordezkari ziuertagiria ere aurkeztu beharko dute eskaera orriarekin batera.

Hiribuseko txartel zaharraren erabilera luzatu dute

Erredakzioa

Garraio publikoaren sustapenean urratsak egiteko helburuarekin, Tolosako Udalak Mugi sistemaren integrazioa ahalbidetu du Hiribusean, «udalerriko garraio publikoa indartzeko eta modernizatzeko».

Hori horrela, 2022ko abendutik, Mugi txartela erabili daiteke Hiribusean. Hasiera batean, ordu arteko txartelak urtarilean baliogabetzea aurreikusten bazen ere, ikusirik erabiltzaile guztiek oraindik ez dutela Mugi txartela eskuratu ahal izan, udalak erabaki du martxoaren 31ra

arte luzatzea txartel zaharra erabiltzeko aukera. Horrez gain, martxoaren 31 bitarte Hiribusean txartel zaharrean duten dirua xahutu ezin duten erabiltzaileek dirua berreskuratzeke ondorengo bidea ireki dute: lehenik, bidaiari interesdunek gidariari eskaera egiteko inprimakia eskatu behar diote, eta betetzean, inprimakia eta txartela emango dizkiote gidariari.

Hiribusa kudeatzen duen enpresak egingo du txartelean ingresatutako diruaren itzulketa eta txartelari dagokion fidantzaren itzulera, inprimakian adierazten den kontu korrontean.

Naiara Roldan de Aranguiz

Tolosaldeko bertsozaleen zita iritsi zen iragan larunbatean azkenean: Ataria Bertso Jaialdia. Oholtza bete zuten Oihana Iguaranek, Jexux Mari Irazuk, Alaia Martinek, Amets Arzallusek, Nerea Ibarzabalek eta Sustrai Colinak, Amaia Agirreren esanetara.

Azken bi urteotan jasandako salbuespen egoera medio, ezin izan da Leidor nahi bezala bete. Baina larunbatean besaulki berdeak bete-beterik izan ziren; bertsozaleen bertso-gosea beste bete baitzen Leidor. ATARIA-ren bueltako bertsozaleak irribarrez, txaloka zein hausnarka jarraitu zituzten bertsolarien lanak. Inoiz baino soilago azaldu zen Leidorreko eszenatokia. Honela, protagonismoa bertso eta bertsolarietara eskaini zitzaion.

Lehen bertsoak kantatzera Oihana Iguaran eta Jexux Mari Irazu atera ziren. 2023. urtean, ATARIA eta Harituz bertsozale elkarguneak hamar urte beteko dituzte. Irazu ATARIA izena proposatu zuena izan zen eta Iguaran berri kolaboratzailea da bertan. Honela, bai ATARIA-ri eta baita Harituzi ere eskaini zioten lehen bertso lana. Irazuk hasiera eman zion: «Atari batek etxe haiei ere ematen die bihotza [...] Informazio sarea eta tokatzen zaion aitor-tza. Eskualde batek behar duela-ko bere euskarazko aitor-tza». «Hamar urteko bide eder hau segi dadila luzera, herriko eta erakundeak bildu bitez laguntzera».

ATARIAko lanari jarraia sortu zen bigarren bertsoaldirako gaia. *Kobazuloak eta zaborra, ezkutu ezin daitekeen errealtatea* dokumentala izan zuten hizpide. Arzallus eta Martin jendartearen jarrerei egin zieten kantu; behar ez den horren kontsumoa salatu zuten, haien hitzetan baita «leku hipokritatik, Gabonen ostein».

UMOREA LAGUN

Umorearen txanda Nerea Ibarzabal eta Sustrai Colinaren esku-



Bertsozaleak jaialdia adi jarraitzen; Amets Arzallus agurrean eta Iguaranen ama pantailaz gaia luzatuz. N.R.A.



Berriro bertsoz beteta

Bertsozaleek Leidor bete zuten larunbatean Ataria Bertso Jaialdian; Iguaran, Irazu, Martin, Arzallus, Ibarzabal eta Colina Amaia Agirreren esanetara aritu ziren bi orduz

tik iritsi zen. Bata *auto-stopista* eta bestea egunero aurretik pasatzen den gidaria; denboralea dela eta, elurra medio, kotxean jasotzera errukitu da. Kotxean abiatu eta errepidea itxita. Orduan hasi ziren bata eta bestearen arteko jirak eta birak. Bertsozaleek lehen barre algarak askatu zituzten.

Alaia Martin eta Oihana Iguaranen txanda iritsi zen segidan. Amatasuna edota alabatasuna

jorratu zuten. Sorpresa pantailan zuten, bertsolarien amek txikitari nolakoak ziren zelatatu baitzieten publikoari. Alaia eta Oihanaren arteko konplizitatea agerian geratu zen eta samurtasunerako zein umorerako tartea utzi zuten.

Umoretik ere kantatu zuten Alaia Martinek eta Sustrai Colinak. Bikote hasiberria eta Colina erromantikoetan erromantikoe-na. Begiak itxita, auto garbitu be-

rria, golf zelaira eramango zuen Sustrai Alaia. Eta Alaia Martinek horrela erantzun: «*Zelai ederra baina loreak non daude?*». Erromantikoak ezin beste era batera erantzun: «*Zelaia hor dago ta lorea zu zara*». Golf zelaiaren zeudela, golf makilari erreferentzia eginez, ezin metafora alde batera utzi Sustrai Colinak: «*Bizitzan izango naiz zure makulua*». Alaia Martin konbentzitu orduan hirugarren zitarako

proposamena luzatuko zion: «*Hasi zaitez prestatzen hirugarren zita*». Eta Sustrai asmo handiekin erantzun dio: «*Alkila-tu behar dut Reale Arena*».

Umorea ez zen falta izan politikari begiratzerakoan. Izan ere, 2023a hauteskunde urtea izango da, eta Amaia Agirrek hori kon-

Ataria bertso jaialdia osorik aste honetan bertan egongo da ikusgai 'Ataria.eus' webgunean

tuan izanda politikari paperean sartzeko eskatu zien bertsolarietara. Tolosako alkategaiek ATARIA IRRATIAN euren benetako asmoak azaldu behar izan zituzten Iparagirreren doinuaren. Perla perla atzetik: «*Alde Zaharra bihurtuko dugu alde prehistorikoa*»; «*Gora Ibarretxe plana ta auzolana*»; «*Denok dakigu zeinekarri zituen karnabalak bueltan*»; «*Parkinak utzi baino kotxeak txikiagoak erosi*», «*Herrigintzan limosnak era Iruran txosnak*»; «*Neuk ere ez dakit non kristo dagon Bedaio*»; «*Zezen plaza bota ta Asuncion jarri bertan. Herri honek behingoz behar duela Erietxe publikoa*», «*Jan edan ta gero bueno tripako minak Asuncion pribatura*» edota «*Bertso eskola inposatuko dut, haurtzaindegitik hasita*».

Honela, mikrofonoak txandakatuz, eszenatoki gainetik edo publiko artetik, gaia Amaia Agirrek zein laguntzaileek proposatuta bertsozaleek berriro ere Leidor beteta ikusi zuten. Eta beteta ikusi besterik ez, bertso-gosea beteta utzi zuten Leidor.

ATARIA larunbatekoaz «balorazio positiboa» egin du eta eskerak eman dizkie Galtzaundiri, Harituzi eta Tolosako Udalari jaialdiaren antolakuntzan parte hartzeagatik. Azkenik, bertsozaleei hurrengo hitzordua jarri die: asteen zehar bideoa osorik *Ataria.eus* webgunean ikusgai egongo baita.



harpidedun izateak badu saria zozketa

1 TOPIC - Tolosaldeko Nazioarteko

Txotxongilo zentroa

Bi lagunentzako bina sarrera

Euskal Herria plaza - TOLOSA
943 65 04 14
www.topictolosa.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

2 ALBAOLA ITSAS KULTUR

FAKTORIA

Bi lagunentzako bina sarrera

Pasai San Pedro
943 39 24 26
www.albaola.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

3 EKAIN FAST + EKAIN ABENTURA

EKAINBERRI museoa

Bi lagunentzako bina sarrera

ZESTOA
943 868811
info@ekainberri.com
www.ekainberri.com



Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deitu **943 09 06 08** telefono zenbakira edo sartu **Ataria.eus** webgunean • Parte hartu aste honetako asteartetik osteguneko 11:00ak arte. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

Kafe kapsulak birziklatzeko edukiontziak jarri dituzte

Tolosaldeko Mankomunitateak kanpaina bat abiarazi du; 60 edukiontzi berezi jarri dituzte eta baita informazio puntuak ere

Rebeka Calvo Gonzalez Tolosa

Eskualdean sortzen den zaborra eta hondakinak biltzeaz ardura-tzen den Tolosaldeko Mankomunitateak kafe kapsulak gaika biltzeko kanpaina abiarazi du. Atzo abiarazi zuten eta eskualdeko herrietan hainbat edukiontzi jartzea eta 9 herritan informazio puntuak jartzean datza.

Tolosaldeko Mankomunitateko Gurutze Etxezabal lehendakariordeak esan du helburua dela lehen urtean eskualdean 25.000 kilo biltzea eta bigarren-goan 30.000 kilo; «hau da, 1.750.000 eta 2.100.000 kapsula, hurrenez hurren».

Esan dute kafe kapsulek sortzen duten hondakinak plastikozko edo aluminiozko ontzia eta kafe hondarra bera direla. Normalean bi hondakin horiek batera deuseztatzeko ohitura dagoela gaineratu dute, kafe hondarrak edukiontzi marroira botatz eta kapsulak berriz, edukiontzi horira bideratuz. «Honek birziklatzeko zailtasunak dakartz. Beste hondakinetatik at jaso-tzen baditugu, bai kafe hondarrak eta baita ontzia ere, beste produktu batzuk egiteko erabili-

ko genituzke, produktuari hain garrantzitsua den zirkularitate izaera emanaz». Horretan datza Tolosaldeko Mankomunitatearen kanpaina eta helburua, hain zuzen, «aipatutako hondakin horiek %100ean birziklatzea».

BEREIZITA JASO BEHAR DIRA

Horretarako baina, hondakin horiek besteetatik berezita jaso behar dira, eta horregatik jarri dituzte edukiontzi bereziak. Zehazki 60 edukiontzi jarriko dituzte olio biltzeko dauden egiteko kafe kapsulak erabili dituzte lehengai bezala, «beraz, hondakina baliabide bihurtu izanaren adibide argia da honako hau», esan du Olatz Peon mankomunitateko lehendakariak. Edukiontzi bakoitza egiteko 7.500 kapsula erabili dituzte. Peonek esan du Tolosaldeko 28 herrietako biztanleria guztiari zuzendutako proiektua dela eta biztanle orok erabili ditzaketela edukiontzi hauek, edozein momentutan».

Hondakin horiez Adunako Kafea.eco enpresa arduratuko da eta produktu berriak sortuko dituzte jasotzen dutenarekin. Ze-



Peon lehendakaria (ezkerrean) eta Etxezabal lehendakariordea (eskubian) atzo, Tolosan eginiko aurkezpenean. J. ARTUTXA

hazki landareak edo perretxikoak hazteko kafe hondarren substratua egingo dute, baita ernatzeko prest dauden haziak nahastutako substratua duten hazi bolak ere, eta azkenik konbustiorako briketak eta pelleta egingo dute.

Bestetik, kapsula birrinduetatik galautsa lortuko dute, eta horrekin hainbat elementu sortuko dituzte; besteak beste, 1.250 kapsulekin egindako paperontziak, 50 kapsulekin egindako kuboak, 6.000 kapsulekin egindako konpostagailuak eta edukiontziak, hesiak nahiz hiri-altzariak egiteko listoiak.

INFORMAZIO PUNTUAK

Kanpainaren barruan biztanleria kontzientziaztea eta informaztea aurreikusitako dute, eta horretarako Tolosaldeko 9 herritan informazio puntuak jarriko dituzte datozen asteetan. Hain justu, atzo eman zuten kanpainaren berri Tolosan kokatutako informazio puntuan. «Proiektu hau ezagutarazteko eta jendeak eduki ditzakeen zalantzak argitzeko

INFORMAZIO PUNTUAK

Alegia. Urtarrilaren 25ean, 16:00etatik 20:00etara.

Anoeta. Urtarrilaren 31n, 10:00etatik 14:00etara.

Tolosa. Otsailaren 4an, 10:00etatik 14:00etara.

Asteasu. Otsailaren 6an, 16:00etatik 20:00etara.

Villabona. Otsailaren 7an, 10:00etatik 14:00etara.

Ibarra. Otsailaren 9an, 16:00etatik 20:00etara.

Irura. Otsailaren 14ean, 16:00etatik 20:00etara.

Zizurkil. Otsailaren 15ean, 16:00etatik 20:00etara.

izango dira», esan zuen Etxezabalek.

HAZI BOLAK ETA KIT-AK OPARI

Informazio puntu horietara gerturatu diren lehen 150 pertsonei hazi bola bat oparituko diete. Hazi bola horiek loreontzi batean sartuz gero, udaberriko loreak ernatuko direlarik. Era berean, lehen 150 pertsona horien artean egunero 3 kit banatuko dituzte. Kit horietan daude perretxikoak hazteko laborantza substratua eta etxean kafe kapsulak biltzeko ontzi txiki bat.

Horretarako, kapsulaz betea dagoen beirazko ontzi bat egongo da erakusgai eta parte hartzai-

leek barruan dauden kapsula kopurua asmatu beharko dute. Ez badu inork asmatzen, gertuen ibili diren eta kopuruan goitik ez diren hiruek emango dute saria.

Hori guztiaz gain, eskualdeko etxe guzietara esku orri bat banatuko dute, kanpainaren inguruko informazioa eman eta zerbitzu berriaren inguruko xehetasunak zabaltzeko.

Bukatzeo gogoratu dute proiektu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak ateratako diru laguntza batzuen barruko proiektua dela. Proiektu honen aurrekontua 45.000 eurokoa da, eta Foru Aldundiari esker erdia finantzatuko dute.



DANBOR HOTSİK GABE

Donostiako edo Azpeitiko San Sebastian eguneko sona handiagoa badute ere, eskualdean herri bat baino gehiagotan ospatzen dute eguna. Orendainen, esaterako, ohiko kalejira egin zuten izen bereko baselizara iritsi aurretik (irudian). Leaburu-Txarman ere ospatzen dute. A. IMAZ

**BAZKARIAK
ETA AFARIAK
asteazkenetik
larunbatera.**

*Egin zure
erreserba!*

**GAINONTZEKO
EGUNETARAKO
KONTSULTATU**

**GARAGARTZA BASERRIA • ADUNA • INFO@RZABALA.COM
943 69 07 74 • RZABALA.COM**



Gaztetxoak korrika, herenegun, San Frantzisko pasealekuan. L. CARRASCO

Jaka eta Aranguren txapelketatik kanpo geratzeko arriskuan

Bost jardunaldi geratzen dira lehen fasea amaitzeko; eskualdeko gainerako pilotariek aukera handia dute aurrera egiteko

Erredakzioa

Hiru puntura dute seigarren postua eta txapelketan jarraitzeko aukera Jakak eta Aranguren. Jokoan, ordea, bost besterik ez dira geratzen. Bederatzi partida jokatu ondoren, garaipen bakarra lortu dute. Azken partida hauetan, gutxienez hiru irabazi beharko dituzte eta aurkarien emaitzei begira egon. Azken partida, Peña II-Eskirozen aurka, 22-15 galdu zuten.

Jon Ander Peña tolosarrak atzelari berriarekin jokatu zuen partida hori, Mariezkurrena II.a lesioagatik ez zelako kantxaratu. Hala eta guztiz ere, Eskirozek bikain ordezkatu zuen nafarra eta puntu garrantzitsu horri esker, sailkapeneko bosgarren postuan daude Peña II eta Mariezkurrena II.a, lau punturekin.

Txapelketa bikaina egiten ari direnak Jokin Altuna eta Xabier Tolosa dira. Hirugarren postuan daude sei garaipenekin, bigarren postuan dauden Laso eta Imazekin berdinduta. Azken partida Peio Etxeberria eta Rezustaren aurka jokatu zuten larunbatean Iruñean. Joko bikaina eginez lortu zuten garaipena: 22-12.

Hurrengo jardunaldian (hamargarrena), Hendaian jokatu du Peña II.ak, oraingoan ere, Eskirozekin batera. Ostiralean izango da partida, eta Laso eta Imaz izango dira aurkariak. Larunbatean bi partida izango dira; Bilbon, Altuna III.ak eta Tolosak, Ezkurdia eta Martijaren aurka jokatu dute, eta Iruñean, Elordik eta Zabaletak, P. Etxeberria eta Rezustaren aurka. Azkenik, igandean, Agoncillon (Errioxa), Jakak eta Aranguren, Urrutikoetxea eta Albisuren aurka jokatu dute.

IZTUETA MIN HARTUTA

Jaka eta Arangurenen egoera berean daude Zubizarreta III.a eta Elizegi. Hiru puntura dute kanporaketa jokatzeko aukera emango duen seigarren postua. Asteasuko atzelaria ez da iaz erakutsitako maila berean ari, eta jardunaldi honetan ere, galdu

egin du aurrelari ataundarrarekin jokaturako partida. 13-22 galdu zuten Larrazabal eta Eskirozen aurka. Baikoko bikotea osatzen duten bi pilotariek hilabete zeramatzaten elkarrekin jokatu gabe (abenduen 25az geroztik); gainera, orduan lortu zuten orain arteko garaipen bakarra. Halaber, aipatzekoa da, lesioak tarteko, txapelketako bederatzi partidetatik lau soilik jokatu dituztela elkarrekin.

Agirrek eta Iztuetak, bestalde, garaipen handia lortu zuten atzo, Etxebarrin. 22-21 irabazi zieten Bakaikoari eta Morgaetxeberriari. Garaipen horri esker, sailkapeneko laugarren postuan kokatu da Baikoko bikotea, bost garaipenekin, bigarren postutik bi puntutara. Atzelari tolosarrak, ordea, eskuko minez amaitu zuen partida, eta ez du jardunaldi honetako partida jokatu; Salaverri II.a ariko da bere ordez.

Hain justu, larunbatean Iruñean jokatu dute Agirrek eta Salaverri II.ak, Larrazabal eta Uriondoren aurka. Egun berean, Bilbon jokatu du Elizegik, Zubizarreta III.aren aurka, Bakaikoaren eta Morgaetxeberriaren aurka. Jardunaldiko beste bi partidak ondorengoak izango dira: ostiralean, Hendaian, Salaberria eta O. Etxeberria Exposito eta Bikuñaren aurka; eta igandean, Agoncillon, Zabala eta Gaskue Eiguren V.a eta Erostarberen aurka.

INAUTERIETAN, BEOTIBARREN

Binakako txapelketako partidak jokatu dira otsailaren 20an eta 21ean Tolosan. Bi partidez osatutako pilota jaialdiak 16:30ean hasiko dira. Astelenitan, Zubizarreta III-Elizegi bikoteak Exposito-Bikuñaren aurka jokatu du promozio mailako partida. Ondoren, Ezkurdia-Martija eta Peña II-Mariezkurrena II bikoteak ariko dira lehen mailakoan. Asteartean, Agirrek eta Iztuetak Zabala eta Gaskueren aurka jokatu dute promozio mailakoan. Lehen mailakoan, Jakak eta Aranguren Altuna III.a eta Tolosa izango dituzte aurkari.

Indartsu bueltatu da Ero-Etxe Krosa

Ehunka gaztetxo aritu dira lasterka 34. Ero-Etxe Krosean; ohi bezala, San Frantzisko ibiltokian izan du irteera eta helmuga, eta parte hartzaile guztiek jaso dute oroigarria

Leyre Carrasco Tolosa

Pandemiaren eraginez bi urteko etena izan ostean, igandean Ero-Etxe Krosaren 34. edizioa ospatu zuten. Ehunka haur aritu ziren gogoz eta ilusioz San Frantzisko kaletik korrika, eta ikustera gerturatu ziren herritarrak ere ez ziren gutxi izan. Zerua urdin bazeen ere, hotza egiten zuen, baina, korrikalariek lasterka hastearekin batera kendu ahal izan zuten hotza gainetik.

Sei lasterketa izan ziren guztira, maila desberdinetan banatuta aritu baitziren gazteak. Infantil mailako mutilen probarekin hasi ziren, eta horiek 2.800 metro egin behar izan zituzten korrika. Ondoren, infantil mailako nesken txanda izan zen, eta 1.950 metro egin zituzten. Alebin mailako mutilek eta neskek 1.400 metro egin zituzten, eta azkenik, benjamin mailako mutilen eta nesken txanda izan zen. 1.100 metroko ibilbidea osatu beharra izan zuten. Krosean parte hartu zuten guztiek jaso zuten oroigarria.

SAILKAPENAK

Infantil mutilak

1. Eñaut Arostegi (Laskorain) 09:49.
2. Joanes Zurarrain (Orixe) 10:04.
3. Ander Alegria (Herrikide) 10:10.
4. Amets Arruti (Laskorain) 10:19.

Infantil neskak

1. Maren Etxeberria (Jakintza) 07:49.
2. Aitana Ayerbe (Herrikide) 07:51.
3. Ane Mujika (Orixe) 07:56.
4. Ane Ariznabarreta (Laskorain) 08:06.

Alebin mutilak

1. Beñat Iraola (Laskorain) 04:49.
2. Unax Telletxea (Uzturpe Ikastola) 04:53.
3. Julen Lekuona (San Benito) 04:54.
4. Egoi Laso (Uzturpe Ikastola) 05:01.

Alebin neskak

1. Iera Uria (Laskorain) 05:07.
2. Ane Zubizarreta (Albiztur) 05:20.
3. Libe Curras (Laskorain) 05:21.
4. Amaia Lertxundi (Samaniego) 05:27.

Benjamin mutilak

1. Aiur Artetxe (Uzturpe Ikastola) 04:07.
2. Beñat Alegria (Herrikide) 04:09.
3. Irai Errondosoro (Uzturpe Ikastola) 04:17.
4. Oihan Artola (Laskorain) 04:22.

Benjamin neskak

1. Leire Guereñu (Laskorain) 04:54.
2. Uxue Ortega (Laskorain) 05:02.
3. Jule Ugalde (Laskorain) 05:02.
4. Elaia Esnaola (Laskorain) 05:05.



Usabalgo abonatuak, beste herrietako kiroldegia eskura

Usabal kiroldegia Mugiment programara batu da, eta horri esker bertan dauden kirol instalazioetara jo ahalko dute abonatuak; 77 kiroldegi daude programan

Iñigo Terradillos Gaztañaga
Tolosa

Tolosako Usabal kiroldegia Mugiment programaren barruan sartu da, eta horri esker, Usabalgo abonatuak programari atxikita dauden beste udalerrietako kirol instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, doan. Era berean, beste herrietako kiroldegietako erabiltzaileek ere Tolosako kiroldegira jo ahalko dute.

Asier Martin Usabal kiroldegi-kudeatzaileak zehaztu duenez, kirol jarduera sustatu eta bazkideei aukera gehiago ematea ahalbidetzen du ekimenak. Mugiment kirol txartela birtuala da, mugikorrean deskargatu behar da Kirol txartela Mugiment aplikazioa, eta ondoren erregistratu abonatuak kiroldegia zehaztuz. Aplikazioak ekimenen batutako udalerrietako kirol instalazioak hautatzeko aukera ematen du. Bertako sarrera erostean simulazioa egin behar da, eta sarrera hori hautatutako kiroldegian balioztatzen da.


Ekimena planteatu zenean Usabalen izango duen eragina jarri zutela mahai gainean azaldu du Martinek, hau da, bertako erabiltzaileengan izango ote zuen ondorioa; «Kiroldegi bakoitzak bere baldintzak eta ordutegiak izango ditu modu honetara erabiltzeko, eta Usabalen kasuan, beste udalerrietatik datozenek soilik goizean erabili ahalko dute, 07:00etatik



Joxe Mari Villanueva, Asier Bakaikoa eta Asier Martin, Mugiment ekimena aurkezten, Usabal kiroldegian. I.T.

15:00etara bitarteko ordutegian, eta larunbatetan 15:00etatik 22:00etara. Beraz, lasai egon daitezela gure abonatuak, erabiltzaile gehien izaten dugun tartetan ez baita kanpokoentzat erabilgarri izango». Usabalgo kudeatzaileak ekimenaz baliatzeraz animatu ditu herritarrak, eta esan du urtebetez probaldian egongo dela, eta ikusiko dutela ze emaitza ematen dituen, zenbat erabiltzaile etortzen diren, eta zenbat joaten diren beste udalerrietako kiroldegietara.

Asier Bakaikoa udaleko kirol



Kirol Txartela Mugiment aplikazioan kiroldegien zerrenda ikus daiteke. A. IMAZ

MUGIMENT TXARTELA

Txartel birtuala. Kirol Txartela Mugiment aplikazioa deskargatu behar da mugikorrean, eta ondoren erregistratu, norbera abonatuta dagoen kiroldegia erabiltzeko.

Kiroldegia. 77 udalerri daude une honetan programaren barruan.

Aukeraketa. Abonatuak programaren barruan dauden kiroldegia aukeratu ahalko dituzte. Aplikazioan zehazten da kiroldegi bakoitzak duen ordutegia.

Sarrera. Beste udalerri bateko kiroldegira sartzeko, aplikazioan udalerria aukeratu, eta kiroldegian txartel birtuala eta NAN erakutsi behar da.

teknikariak azaldu duenez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 77 udalerri daude une honetan programaren barruan. «Eusko Jaurlaritzako kirol zerbitzutik dator ekimena, eta pixkana udalerri gehiago batzen joango da». Herritarrei kirol jarduerak egiteko erraztasunak ematea dela asmoa esan du; «ikasten dagoelako edota lanean beste herri batean dagoelako aukera ematen da udalerri batean abonatua izanda ere, beste udalerrietako kiroldegia erabili ahal izatekoa».

Joxe Mari Villanueva udaleko kirol zinegotziak, bere aldetik, gogoratu du Tolosako kirol zerbitzuak hobetu eta herritarren eskariei erantzuteko eta kalitatezko kirol instalazioak eskaintzeko azken hilabeteetan egindako aldaketan artean, kirol instalazioen kudeaketarako esleipen berriak hobekuntzak txertatu zirela, ordutegiaren zabaltea eta inbertsio berriak egitea, hain zuzen. «Orain, urrats berria eman dugu, Kirol Txartela Mugiment programarekin, herritarren kirol praktika areagotzeko, kirol jarduera osasuna baita». Villanuevak esan du azken hilabeteetan nabaritu dela inbertsioak egitean erabiltzaile kopuruak gora egiten duela, eta hori pozgarria dela.

Hilberriak eta urteurrenak



-ESKERTZA-

**Juana Lazkano
Ariztimuño**

Ostiralean hil zen, Gabirian, 84 urterekin.

Larunbateko hileta elizkizunera joan ziren eta doluminak bidali dituzten guztiei familiaren esker ona.

Bederatziruenerako meza otsailaren 5ean, 11:15ean izango da Gabiriako Andre Mari elizan.

GABIRIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.



**Margari
Arruabarrena
Gorostidi**



Aitorren lagunak partetik,
doluminak eta besarkada handi bat sendiari.

ZALDIBIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.



**Margari
Arruabarrena
Gorostidi**



Hainbeste amets, negar ta desio
ez du ekaitzak hondora botako,
salbatuko da goizeko ontzia
kaiaren bila hegaka joateko.

Etxeokak

ZALDIBIAN, 2023ko urtarrilaren 24an.



ASTEARTEA, 2023KO URTARRILAK 24
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarralea: 687 410 118. ibarralea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132. kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: **943 30 43 46**



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



BABESTUTAKO EDUKIA

Kalitatezko eskaintza, ikasleen etorkizunerako

Ikasleek bizitzarako beharrezkoak dituzten gaitasunak lortzeko bitarteko lanak egiten dituzte Orixe Institutuan; datorren ikasturterako eskaintza zabala prestatu dute, eta guztia ezagutzeko, ate irekiak egingo dituzte otsailaren 2an, 18:00etan.

Oraindik hilabete batzuk gertatzen badira ere, Orixe Institutuan jada hasi dira ikasturte berriarako prestaketa lanekin. Ate irekiak izaten dira horretarako lehen urratsa, eta Orixen badute data eta ordua; otsailaren 2an, 18:00etan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen mailako ikasleen gidaritzapean, eraikina ezagutu ez ezik, institutuak eskaintzen dituen zerbitzuak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute Orixen bere ibilbidea hasi nahi duten ikasle berriek, ez baitira gutxi.

Batetik, Orixek eskaintzen duen hautazko ikasgaien zerrenda zabala ezagutzeko aukera izango dute. DBHn eta Batxilergoan derrigorrezkoak diren irakasgaiez gain —euskara, ingelese, gaztelera, eta abar— ikastetxeak, Hezkuntza Sailak eta ikastetxean bertan sortutako hautazko ikasgaien aukera anitza eskaintzen die ikasleei. «Ikasleei aukera zabalena ematen saiatzen gara, hori da gure baloreetako bat», azaldu dute Orixetik.

Eskaintza anitza da institutuan eskaintzen dutena, eta maila guztietara zabaltzen da, gainera. Hizkuntzekin lotutako hautazkoak dituzte, frantsesa eta Digital Communication (Sare sozialak eta digitalizazioa ingelesez) kasu, ikus-entzunezkoekin eta informatikarekin lotutakoak

IKT, bideo joko tailerra, ikus-entzunezko tailerra, artearekin eta eskulanekin lotutakoak, artisautza adibidez eta teknologiarekin lotutakoak, robotika aipatzearen.

Laugarren mailan modalitatearen arabera hautazkoak izango dituzte ikasleek aukeran, bakoitzak hartzen duen bidearen baitakoak. Hautazkotasuna ere Batxilergoan mantentzen da, atzerriko hizkuntzekin, frantsesa eta ahozkotasuna ingelesez, ikus-entzunezkoekin, artearekin —pintura— eta teknologiarekin lotutako hautazkoen bidez. Azken honetan ere, modalitatearen arabera, honi lotutako hautazkoak izango dituzte aukeraren ikasleek.

Metodologia ezberdinei esker, praktikan oinarritutakoak baina teoria oinarri dutela, ikasleek etorkizunerako beharrezkoak izango dituzten gaitasunak lortzeko lanak egiten dituzte Orixen. Ikastetxean egiten dituzten proiektu eta talde lanez gain, ikastetxetik kanpoko hainbat ekintza osagarri ere maiz egiten dituzte ikasgaietan landutako edukiak sakontzeko eta finkatzeko helburuarekin. Hala nola, irteerak, tailerrak edota programa ezberdinetan parte hartzen dute, horren adibide, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen Kultura Eskola programa.

Kirolarekin lotuta eta jendea-



ren parte hartzeari esker, herri mailan ospe handia duen abenduaren 31ko San Silvestre kros solidarioa antolatzen du Orixek, Tolosako Haur eta Lehen Hezkuntzako beste ikastetxe publikoarekin batera, Samaniegorekin, hain zuzen. Egun horretan, familien, irakasleen eta ikasleen borondatezko parte hartzeari esker, Tolosako herriari ekitaldi interesgarria eskaintzen diete.

ERASMUS+

Nabarmenezko proiektuen artean, Erasmus+ programa aurkitzen da. Bertan, ikasleen arteko elkartrukeak eta mugikortasuna eta irakasleen formazioa gauzatzeko dute helburu. «Jazko abenduan Erasmus+ akreditazio agiria jaso genuen. Honekin datozen

zazpi urteetan ikastetxeak Europan zehar egiten diren kalitate handiko mugikortasun ekintzak burutzeko finantziarazioa izango dugu. Lorpen honek eragin zuzena izango du Orixeko ikasle zein irakasleengan, eleaniztasuna, inklusibitatea, digitalizazioa eta garapen iraunkorra baititu helburu».

Akreditazioa eskatzera bi arrazoiengatik animatu zirela azaldu dute: «Batetik, ikastetxeko ibilbidearen jarraipen logikoa zela ikusten genuelako eleaniztasunean jada ibilbide bat eginga baitzen, eta bestetik, hurrengo urteetan gure proiektuak aberastu eta ikasle guztiei zein irakasleei mugikortasun gehiago eskaintzea delako gure helburua».

Horrenbestez, Erasmus+ pro-

DATUAK

Helbidea. Santa Luzia, 16, Tolosa.
Telefono zenbakiak. 943 89 92 89 eta 943 89 92 88.
Faxa. 934 89 92 91.
E-maila. 012980aa@hezkuntza.net.
Webgunea. Orixebhi.hezkuntza.net.
Sare sozialak. @orixebhi(Twitter) eta Orixe BHI(Facebook).

graman beste hainbat berrikuntza izango dituzte datorren ikasturtetik aurrera. Horren adibide, DBH 4ko bi ikasleek atzerri joateko aukera izango dute ikastera, lau hilabetez, irailtik abendura bitarte. «Erasmusko programa berak ikasle guztiei baldintza berak markatzen dizkie. Beraz, hizkuntza ez ezik, errendimendu akademikoa ere lehenetsiko da. Aukeraketa egiteko garaian hori da baloratuko dena».

ERAIKIN BERRIA

Etorkizunerako beste hainbat erronka ere badituzte martxan Orixen. Horien artean «potoloena» institutua berritu eta handitzea da. Proiektua duela lau urte abiatu bazuten ere, iaz hasi zituzten Bigarren Hezkuntzako Institutuaren eraikina eraitsi eta berria eraikitze lanak.

Egun, Orixe institutuak elkarren ondoko bi eraikin ditu: Gorosabel eraikina eta Orixe eraikina. 1974an eraikitako Orixe eraikina da eraitsiko dena, eta haren lekuan jasoko du Hezkuntza Sailak institutuarentzako eraikin berria, orube berean. Gorosabel eraikinak, berriz, zutik jarraituko du eta Batxilergoko ikasleen gelak hartuko ditu, baina pasabide itxi eta estali batek lotuko ditu bi eraikinak.

Eraikin berriak L itxura izango du, DBHko ikasleak hartuko ditu eta ohiko gelez gain, bestelako gela bereziak izango dira hezkuntzak proposatzen dituen erronka eta metodologia berriei erantzuteko; musika, teknologia tailerra, laborategiak eta plastika gelak eta erabilera anitzeko gelak, besteak beste. Gainera, kanpoko gu- neak kirola egiteko aukera emateaz gain, atsedeen hartzeko espazioak egokituko dira berdegunean. Espazio berria hiru urte barru izango da erabilgarri.